

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zeanuri



Aurkibidea

Udalerria: Zeanuri

Sarrera



Zeanuri Bizkaiko hego-ekialdean, Arratia eskualdean dagoen udalerria da. Iparraldean eta ekialdean Dimarekin du muga, ipar-mendebaldean Areatzarekin, mendebaldean Orozkorekin eta hegoaldean Ubide eta Zigoitiarekin (Araba); Barazarko mendateak lotzen du Arabarekin. Udalerrri honetan dago Gorbeia mendia eta bere izeneko parke naturalaren zati handi bat hartzen du. Auzo hauek osatzen dute herria: Plaza, Eleizondo, Orue, Asterria, Uribe, Ipiña, Undurraga, Altzusta, Lanbreabe, Ipiñaburu, Zuleibar, Otsemendi, Zubizabal, Altzuaga eta Iburguen. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenean oinarritutako lehengo sektorea da nagusitzen den sektorea. UEMako kidea da herria, euskal hiztunen ehuneko esanguratsua duela eta. Mendebaleko euskararen edo bizkaieraren aldaera bat dute jatorrizko euskalkia.

- **Biztanleak:** 1.242
- **Euskaldunak:** %90,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **15**
- Zintak: **27**
- Pasarteak: **62**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **62**

Proiektuak

- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak

Hizlariak

Francisca Agirrezabala

Benita Agirrezabala Etxezarraga (1926-2024)



Zeanuriko Altzuaga "Altzua" auzoko Intxurra baserrian jaio zen. Ama auzo bereko Uriarte baserrikoa zuen eta aita Ipiñaburu auzokoa. Gerra Zibila zela-eta, eskola utzi ta garraostean neskame joan zen. Gerran kobazuloetan ostontzen zirela du gogoan eta Buia aldera joan zirela errefuxiatuta ganadu eta guzti. Beraien etxean milizianoak egon ziren eta hura "sastegia" zela dio; ondorioz, sarna hartu zuten. Aita ikazkintzan ibilitakoa zuen eta senarra estraperloan. Ipiñaburu auzokoa zen bere lehengusuagaz ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen. [Eulogia Beobide](#) auzokidea eta [Juan Francisco](#) lehengusua izan zituen lagun kontakizunean.

Juan Francisco Agirrezabala Olazkoaga *Ezkerra* (1923)



Zeanuriko Lanbreabe auzoko Ipiñaburu baserrian jaio zen. Aita baserrikoa bertakoa zuen eta ama Isasikoa. Sei neba-arrebatatik zaharrena da. Gaztetan behar ugari egin zituen, batez ere basoan. Hortik datorkio ehizarako zaletasuna. Gero Bilbon hasi zen beharrean eta bertara joan zen bizitzera. Hala ere, beti joan izan da astean behin Zeanurira, gurasoengana. Gerrako kontuez egin genuen berba berarekin egon ginenean, gaztetako ibilerez eta ehizaz, besteak beste. Bere [lehengusinagaz](#) batera egin genion elkarrizketa.

Bitoria Añibarro Ugarte (1919-2016)



Zeanuriko Amalauetxen jaio zen 1919. urtean. Hamar neba-arrebatatik gazteena izan zen. Aita Ipiñaburun (Zeanuri) jaioa zen eta ama Areatzan. Bere neba-arreba guztiak ere Areatzan jaio ziren; hori dela-eta, beti izan zuten Areatzarako joera eta bertan egiten zuten bizimodua Zeanurin barik: mezara, jaietara, esnea saltzera, eskolara... Aita bi urte zituela hil zen eta amagaz batera bizi zen Otzerimendiko Pagaegira "Pagai" ezkondu arte. Gerra Zibilean ere amagaz batera egiten zuen alde Ugao-Miraballesera.

Eulogia Beobide Artetxe (1923-2015)



Altzuaga "Altzu" auzoko Azpiondo baserriko alaba. Aita bere jaiotetxe berekoa zuen eta ama Arteakoa. Undurragako eskolara gutxi joan zen gazterik hasi behar izan baitzen beharrean. Gerra Zibilean Zeberio aldera joan behar izan zuten etxea utzi eta gero. Bilboko Abusu auzora ezkondu zen borroka libreko borrokari bategaz, eta bertan bizi izan zen urte askoan berriro ere Arratiara bueltatu arte. [Benita Agirrezabalagaz](#) batera eman zigun lehengo Zeanuriko berri.

Benita Goikuria Egiluz (1930)



Zeanuriko Ipiñaburu auzoko Etxandia baserrian jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, auzo bereko Undurraga baserrikoa. Gerra aurretikoan auzoan eraikitako eskola berrian hasi zen sei urterekin. Gerra denboran, Ubiden babestu ziren, lehentxoago euren etxean gerratik babestuta egon ziren ubidear batzuen etxean. Hamasei urterekin Urkiolako Bizkarra hotelera joan zen neskame. Gero Bilbon jarraitu zuen neskametzan, Goiuriko bere gaurko etxearen ugazabak zirenen etxean. Auzoko Anjel Basterrarekin ezkondu zen Ipiñaburuan. Urkabustaizko Goiuri-Ondonako euren etxe berrira egin zuten eztei-bidaia, egundoko elurtearekin. Lau seme-alaba izan zituzten. 1959. urteko haizete-harriak Goiurin eragindako hondamenak azaltzen ditu. Bere bi seme artzainek etxeko gaztandegia kudeatzen dute.



Simona Intxaurbe Gorostiza-goiza (1916)

1916. urtean jaio zen Zeanuriko Uribe auzoa. Handik, Olabarriko errotara ezkondu zen. Ipuin eta abesti asko ezagutzen ditu.

Zeferino Lejarreta Ozerin (1907)

Zeanuriko Emaldi auzoan jaio zen. Gaztetxotan, morroi egon zen Diman eta Bedian. Nekazaria eta artzaina ere izan zen; baina, batez ere, basoko lanetatik (basomutil, ikazkin...) atera zuen bizimodua. Mendi- eta baso-tasadore ezaguna izan zen Arratia aldean. Zeanuriko Eleizondo auzoan San Balentin egunean egiten den ospakizunean, bera arduratu zen, 40 urtean, santuaren ermitaren aurreko artearen gerria neurtzen. Gerra denboran, hiru urte egin zituen kartzelan.



Gontzal Mendibil (1956)



Benigno Pujana Emaldi

Olabarri errota etxekoa.

Bibiñe Pujana Intxaurbe (1951)

Zeanuriko Olabarriko errotan jaio zen. Bere amagandik, [Simona](#)gandik, ikasitako ipuinak kontatu zizkigun guri ere ipuin-kontalari honek.

Pedro Rekalde Pujana (1928)

Zeanuriko Zubizabal baserrian jaio zen. Aita zen bertakoa eta ama, berriz, otxandiarra. Bost seme-alaba izan zituzten. Otxandioko Mekoletako eskolara joan zen 14 urtera arte. Eskolok urte biko etena izan zuten gerra zela-eta. Gerra denboran Ortuellan egon ziren babesean apiriletik ekainera arte. Baserrian egon zen 30 urte izan zituen arte. Legutioko "Aceros San Blas" lantegian egin zuen lan bi urtez, eta handik Aramaioko Oletako "Aulasa" ijezketa (laminazio) lantegira joan zen lanera, eta bertatik hartu zuen erretiroa. Legutiora ezkondu zen, Lucrecia Agirregabiria legutiarrarekin. Hiru seme-alaba dituzte.



Bixenta Sagarna (1922)

2002. urtean, grabazioa egin zitzaionean, 80 urte zituen Bixentak.

Jazinto Sagarna Urrutxurtu Gorbeiako artzaina (1935-2018)



Zeanuriko Alkibar auzoko Larrena baserrian jaio eta hazi zen. Lau neba-arrebatatik hurugarrena izan zen eta bederatzi urte zituela artzain lanetan hasi zen eskolara joateko aukera askorik izan barik. Hortik datorkio bere ezizen ezaguna, Gorbeia aldean ezaguna baita Jazinto bere ezagupen handiak direla-eta. Artzain, ikazkin, erreka arrantzan ibilitakoa, perretxikozalea, bertsolaria, hainbat sendabelarretan aditua, tenporetan aditua... Batez ere azken horregatik da ezaguna Jazinto: eguraldiari lotutako aurreikuspenak egiten aditua baita, mendian eta naturaren bihotzean pasatako orduak emandako irakaspenei esker.

Karmele Urutxurtu Goiuaga (1933)



Zeanuriko Oruen jaio zen 1933an eta ezkondu arte bertan bizi izan zen, baserrian. Ama Ipiñaburukoa zuen eta aita Oruekoa bertakoa. Karmele Galdakaora ezkondu zen. Hala ere, eta Galdakaon urte asko eman baditu ere, ondo gogoratzen ditu Zeanuriko kontuak eta umezaroko bizimodua. Honela, baserriko lanez, eskolaz, Gabonetako eta Aste Santuko ohiturez eta Anboto Mariren inguruko kontuez hitz egin dugu berarekin egindako berbaldian, besteak beste.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. "Amaren sua berpiztuko dut"

- **Hizlaria(k)**: Mendibil, Gontzal
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: ZEA-012/007
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:17:17. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Amatik datorren pertsona zen. Bere ama, eta gure lurra. Arestiren "Gure aitaren etxea defendituko dut" esaerak balio izan duela, baina lehena eta geroa harrapatzen duena "Amaren sua berpiztuko dut" litzatekeela esaten zuen, geureagoa delako. Joan zaigu baina hemen dago, eta bere pertsona eta teoriak inoiz baino biziago daude.

Transkripzioa

-Eta misterioaz batera amaitzeko, ta Aresti aipatu dot lehen, berak eta biok askotan aipatzen gendun gure amatasuna ta bera amatik, amatik datorren

persona zan. Ta ama, berantzat ama dana zan, ama bere ama hortik datorrelako, baina ama lurrak emoten ebana ta gure amatasuna. Eta beti esaten eban: "guk gure pentsakera, gure moduak aldatu behar doguz". Hau da, Arestirena "Aitaren etxea defendituko dut" horrek balio izen dau, baiña horrek punto batean amaiera behar dau eta joan behar dugu atzerago baiña aurrerago. Eta atzerago joatea da "Amaren sua berpiztuko dut" eta hori da geureagoa da, hori geureagoa da, hor jentea badau, oindio ez dau gertu baiña horra joan behar dogu, aztertzeko euskeratik, geure pentsakeratik, suak daukan indar horretatik eta bilkura horretatik. Eta orduan, hori esatendotzunian holako batek, esaten dozu: "Koño!" Hor zerbait miresgarria da hori ez, misterio hori hor bota dozku Bitorrek eta guk deskubritu deigula. Hori diño berak, eta nik uste dut, bidean jentea asko dago, eskerrak, ba beraren teoriei eta beren pentsakerari jarraipena emoteko ez! Eta hori poztekoa da. Eta pozik egotekoa da, joan jaku baiña hemen dago, Bitor bizi-bizirik dago ta eskerrak. Eta bere teoriak, nik uste, iñoiz baiño biziago dagozela eta iñoz baiño etorkizun handiagoan dagozela.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Maistra bat naparra eta bestea bilbotarra (ZEA-002/003)

Sei urterekin hasi zen eskolan. Hasi eta berehala etorri zen gerra. Bi maistra izan zituen, bata nafarra eta bestea bilbotarra. Oso maistra onak ziren. Josten erakusteko makinak eta guzti zuten eskolan. Aurretikoak Undurragara joaten ziren eskolara, baina Benitaren denboran auzoan, Ipiñabururik, bazen eskola.

2. Tindatutako izara batetik jaunartze-soinekoa atera (ZEA-002/004)

Jaunartzea egiteko soinekoa eginda zeukan gerra etorri zenean. Ubidera ihes egin behar izan zuten ezer hartzeko asti barik. Hurrengo egunean, neba mendiz joan eta bere soinekoa eta beste hainbat gauza ekarri zituen. Berak ez zuen soineko hura jantzi gura jaunartzea egin arte, baina amak behartu zuen janztera besterik ez zegoelako. Astegunean erabiltzearen poderioz, jaunartzeko soinekoa hondatu zuenez, izara bat "azul cielo"z tindatu eta haregaz egin zioten soineko berria jaunartze-eguna heldu zenean.

3. Ubideko etxe batean errefuxiatuta (ZEA-002/005)

Frontea Legutio aldean zegoelarik, Ubideko familia bat egon zen beren etxean errefuxiatuta. Gero, frontea Arratia aldera pasatu zenean, Ipiñabururik Ubidera aldatu zen Benitaren familia. Ganbara batean egiten zuten lo ume pila batek.

4. Benitaren aita eta ama txapel gorriaz ibiltzera behartuta Ubiden (ZEA-002/006)

Zeanurin, batzuek gora egin zuten ihes, nazionalek okupatutako lurretara; eta beste batzuek, behe aldera, artean errepublikazaleenak ziren lurretara. Benitari-eta moroek kafea eskaintzen zieten Barazarren egon zirenean. Amari eta aitari txapel gorriaz ibilarazten zieten Ubiden Falangekoek.

5. Abere guztiak kendu, osabaren artaldea izan ezik (ZEA-002/007)

Francoren tropak Zeanurin sartu zirenean, etxetik arrapaladan irten behar izan zuten abereak bertan utzita. Auzoko gizon batek Ipiñaburuko ganadu denak jaregin zituen hurrengo egunean. Euren baserriko ganaduak harrapatu eta hiltegiara eraman ei zituzten handik laster Bilbora. Osabaren artaldea, berriz, salbatu zen. Aita etxera itzuli zenean, oilaloka bat bakarrik aurkitu zuen. Izarak eta horrelakoak ere harrapatu egin zizkieten.

6. Aita baserritarra eta bizargina aldi berean (ZEA-002/008)

Zeanurin, frankistak sartu aurretik, kobazulo batzuetara joaten ziren babestera. Sarreran artilezko koltxoiak egoten ziren ipinita. Gauetz itzultzen ziren etxera. Karburo argiaz ibiltzen ziren. Aita, baserritarraz gain, bizargina ere bazen, soldadutzan ikasita.

7. Aitaren bizargintzako tresnen historia (ZEA-002/009)

Aitaren bizargintzako tresnak baserrian geratu ziren arrapataka ihes egin zutenean. Benitaren ahizpa Villaron (Areatza) zegoen, neskame aberats-etxe batean. Egun batean, aleman batekin agertu zen motorrean Ubiden. Gero Gasteizera joan ziren aitarendako bizargintza-tresnak erostera. Pentsatzen du ugazaba aberatsaren ekimenez gertatu zela hori. Gero, jende askori mozten zion ilea, soldaduei ere bai.

8. Kobazuloetan ezkutatzera bonbapean (ZEA-002/010)

Kobazulo ugaritan ezkutatzen ziren Ipiñaburun. Umeak elkarrekin nahi, eta behin Benita mutiko lagun batekin joan zen beste kobazulo batera; aita larri ibili zen kobaz koba alabaren bila. Hainbat bonba erori zen orduan; apur bat lehenago abiatu izan balira, azpian harrapatuko zituzten. Ipiñaburu haitzen azpian dago, eta konturatu orduko heltzen ziren gainera hegazkinak. Zotza sartzen zuten ahoan bonba-hotsari aurre egiteko. "El Abuelo" deitzen zioten hegazkina famatua zen. Arbola baten azpian ezkutatu ziren bonbardaketa batean; ez zitzairen ezer gertatu, baina auzoko kristal guztiak apurtu ziren.

9. Aita negarrez auzora soldaduak heldu zirenean (ZEA-002/011)

Gerra denboran, aita inoiz bera bidaltzen zuen auzora zelatatzerara. Behin, auzoko baserri bateko atarian soldaduak ikusi zituen albistea ekarri zion, eta aita negarrari eman zion. Benita beldurtuta. Berehala irten behar izan zuten etxetik ihesi.

10. Ipiñaburuko adineko lagunak Bilboko zaharretxera abadeak eroan (ZEA-002/012)

Eurak ondo egon ziren Ubiden. Abadeak ematen zien eskola. Ipiñaburun euren aldamenean bizi zen andre zaharra, Joana, eroan nahi izan zuten Ubidera, baina ez zuten lortu. Gero abadeak hura eta beste adineko batzuk Bilbora eroan zituen zahar-etxeetara.

11. Ubidetik etxera, oso eguraldi txarrarekin (ZEA-002/014)

Ez du gogoan zenbat denbora egon ziren Ubiden. Baina bai itzulerako eguna. Euria, trumoiak, oinaztuak... Aitita eta amama oso zaharra ziren. Aita ez zetorren eurekin. Udaberria izango zen, etxera heltzean belarra oso altu

zegoen eta. Iturrira joaten zirenean, pitxarra bizkarrean eraman behar izaten zuten, hazirik sar ez zedin pitxarrera. Garia hartu zuten urte hartan, baina uzta txarra, soroak zaindu barik zeudelako. Artorik eta horrelako beste uztarik ez zuten hartuko, ziurrenik. Gauza bat kendu eta beste bat ipini, txandaka erabiltzen zuten lurra, zuten apurra ondo aprobetxatzeko.

12. Maisu-maistrek miseriazko soldata (ZEA-002/016)

Maistra galiziar bategaz ibili ziren denboraldi batez eskolan. Betaurreko lodiak zituen, gaizki ikusten zuen eta neska-mutikoez barrabaskeriak egiten zizkioten. Oso gutxi irabazten zuten irakasleek, apopilajea pagatzeko lain ere ez. Jatekoa ematen zieten auzoak.

13. Ikasle euskaldun hutsak, irakasle erdaldun hutsak (ZEA-002/017)

Gurasoek ez zuten ilusio handirik umeak eskolara bidaltzeko, irakasleak erdaldun hutsak zirelako eta seme-alabak euskaldun hutsak. Gerra aurretik euskaraz ere erakusten zieten eskolan. Euskaraz eginez gero zigortu egiten zituzten. Berak gerra ezker ez zuen ezer ikasi. Oso txarto egon ziren maistra galiziarrekin.

14. Eskolarik ikasi ezaren damua (ZEA-002/018)

Doña Carmen, maistra madrildarra, beti negarrez egoten zen gutuna hartzen zuenean. Benitak eskola gutxi du eta horren damu da. Eskola gehiago izan balu ez ei zen orain Gujulin (Goiurín) egongo. Dendari, ile-apaintzaile edo beste zer edo zer izango zen, baina "numerorik ez daukat eta...". Horregatik saiatu da seme-alabei eskola ematen. Eskola ezinbestekoa da bizitzarako.

15. Aitak artaldea ipini artzainek oparitutako ardiekin (ZEA-002/019)

Gerra ostean artaldea ipini zuen aitak, zenbait artzainek oparitutako ardiekin. Antzina nahiko normala ei zen artzain bakoitzak ardi bat edo bi oparitzea artzain izateko borondatea agertzen zuenari, eta horrela artalde berria osatzea.

16. Anaia "betirarte" agurtu zeneko egun tristea (ZEA-002/020)

Anaiak zazpi urte egin zituen soldadu. 1940ko kintoa zen. Ez zaio inoiz ahaztuko behin, etxean baimenez egon eta gero, agurtzerakoan, "betirako agurtu" zela. Atsekabetuta geratu zen familia guztia. Amak, nahiz eta osasunez txarto ibili, tranbiara arte lagundu zion, sei kilometroko bidea eginez. Zorionez, onik itzuli zen, ez zitzaion ezer txarrik gertatu. Garai hartan makien istorioak entzuten ziren eta anaiak pentsatu zuen gerrara zihoala.

17. Benitaren hiru anaia Arabako Añua herrian morroi (ZEA-002/021)

Benitaren hiru anaia morroi egon ziren Araban Añua izeneko herrian. Behin, ugazabarekin batera etorri ziren Ipiñuri aburura jaietan. Auzoko batek esaten ei zuen bestela ez zirelako itzuliko lagundu zietela ugazabak mutilei.

18. Anaia, bizargina eta zapataria (ZEA-002/024)

Aitak bariku arratsaldetan bizargin lanak egiten zituen, hurrengo egunean feriara joaten ziren auzotarrei begira. Domeketan Undurragara joaten zen bizarra eta ilea moztera. Benitaren nebak, bizargintzaz gain, zapatari lana ikasi zuen Areatzan, eta zapatari eta bizargin jardun zuen, Undurragan lehendabizi eta Areatzan gero.

19. Urkiolara neskame, erdara apur bat ikasi nahiz, gero Bilbora joan ahal izateko (ZEA-002/025)

Hamasei urterekin Urkiolara joan zen neskame, Bilbora joateko ez zuelako erdararik. Hango udatiarrekin erdara apur bat ikasi nahi zuen, gero Bilbora joan ahal izateko.

20. Bizkarra Hoteleko neskame-lanak (ZEA-002/026)

Bizkarra Hotelean egon zen lanean Urkiolan. Hango familiaren eta egiten zituen lanen gorabeherak. Denetik egin behar izaten zuen. Eskuz garbitu behar hoteleko izara eta eskutrapu guztiak.

21. 900 pezeta, bederatzi hilabeteko soldata (ZEA-002/028)

Bederatzi hilabete egin zituen Urkiolan. Gogoan du Mañaria alderako basoan ira ebakitzera joan eta zelan bere buruari galdezka jardun zuen zer egiten zuen han. Painelu baten bilduta eman zion etxekoandreak bederatzi hilabeteko soldata. Autobusean Otxandioraino jaitsi zen eta handik oinez abiatu zen etxerantz. Bidean painelua zabaldu eta 900 pezeta ikusi zituen. Pozik heldu zen etxera.

22. Bilbon neskame, burdindegi baten jabe ziren ugazaben etxean (ZEA-002/029)

Urkiolatik itzuli eta hamabost egunera Bilbora neskame joateko okasioa izan zuen. Emakume ezkongabez betetako etxe bat zen. Tinbre pila ei zegoen etxean, eta ezin asmatu zein jo. Oso gaizki pasatu zuen hasieran. Behean burdindegi handi bat zeukaten ugazabek. Hiru hilabete egin zituen han.

23. Algortan neskame aldika aberats-etxe batean (ZEA-002/030)

Geroago ere ibili izan da neskame lanetan, baina aldika. Algortako aberats batzuek uda Euskal Herrian pasatzen zuten eta negua Hego Ameriketara. Benita udan joaten zen zerbitzatzera haien etxera. Orain Benita bizi den Gujuliko etxea aberats-familia harena zen.

24. Arabako Gujulira, neskame-etxe ugazaben baserri batera bizitzera ezkondutakoan (ZEA-002/032)

Ugazabek konbentzitu zituzten Benita eta senarra Goiuriko etxera ezkon zitezen. Hasieran egindako diru-tratua txarra zen Benita eta senarrarentzat. Denbora bat pasatu eta bizibiderik ez zegoela ikusi zutenean, alde egiteko plantatu ziren. Orduan errenta barkatu zien jabeak, etxea zutik izatearen truke, eta Benitak eta senarrak onartu egin zuten.

25. Gizona baserria utzi eta fabrikara (ZEA-002/033)

Patata, txerriak, esne-behiak..., denetik izan zuten baina hala ere ez zuten bizitzeko adina irabazten. Gizona Izarrako fabrika baten hasi zen lanean.

Eskualdeko jende gehiena laborantza utzi eta industriara joan zen. Parket izeneko fabrika bat ipini zuten Izarran, baina porrot egin zuen berehala. Gizona guarda egon zen azken urteetan lantegi horretan. Gero Ibercauchon egon zen gauzain.

26. Ipiñaburutik Gujulira Mirandan barrena, Benitaren "elurretako eztei-bidaia" (ZEA-002/034)

Ipiñaburun ezkondu eta Gujulira joan ziren bizitzera. Urtarrilaren 3an heldu ziren, elurtza ikaragarriarekin. Lehenengo, autobusez Zeanuritik Gasteizera. Handik, trenez Mirandara; eta Mirandatik Izarrara. Izarratik oinez, traste guztiekin Gujulira, elurtzan aurrera egin ezinda. Hura izan ei zen euren "eztei-bidaia". Geroago, pare bat egun igaroko zituzten Plentzian.

27. Bizikide neskazaharraren ezkontzeko ilusioa (ZEA-002/035)

Morroiaren izekoa eta iloba txiki bat bizi ziren Gujuliko etxean. Muxikarrak ziren. Handik laster izeko neskazaharra (47 urte) ezkondu egin zen eta Zornotzara joan zen bizitzera. Benitak 22 urterekin ez ei zuen hark besteko ilusiorik izan ezkontzeko.

28. Benitaren artaldetxoaren gorabeherak (ZEA-002/038)

Umeak eskolara bidali, behi-kortako lanak, txerrienak, gero ardienak... eguerdira arte ez zen sukaldera heltzen. Lanpean bizi zen. Beti ardiak edukitakoa da Benita. Artaldetxoaren istorioa kontatzen du.

29. Harriak uzta guztia birrindu zien urtea (ZEA-002/039)

Gizona fabrikan hasi zenean, lasaitasun handia hartu zuen. Harriak uzta guztia birrindu zien urte batean. "Zerue goien eta lurra behean" geratu ziren. Sekula baino uzta hobea ei zetorren. San Juan bezperan dena xehatuta geratu zen, gari, arto, ailorbe... Beldurgarria izan zen harri-zaparrada hura. Egun haren kontakizuna. 1959. urtea zen. Arantza-zuztarrak ere zurituta geratu ziren.

30. Ez zuen gura seme-alabak baserrira dedikatzea (ZEA-002/040)

Ikusita nolako desengainuak ematen dituen baserriko bizitzak, garbi izan du seme-alabak ikasi egin behar zutela, ikasketak egin. Ganadua kapritxo gisa ondo, baina ez bizibide gisa. Eta baserria aukeratzen bazuten, gustuz izan zedila, ez inposatuta.

31. Zeanuri aldeko jaiak (ZEA-002/043)

Dantzari zebiltzanean, Abemarietako kanpaiak jotzen zituen andreari esaten zieten itxaroteko apur bat, emateko etxera heltzeko astia. Santiago, San Pedro, Santa Ageda eta San Adrian ospatzen ziren Ipiñaburun. Zeanurin Andra Mari eta Areatzan San Bartolome. Areatzan ahizparen etxean geratzen zen Benita jaietan, baina bere lagunak ezin jaietara etorri Ipiñaburutik, urrun geratzen zelako. Su artifzialak egoten ziren eta penaz geratzen zen lagunek ezin zutelako ikuskizunaz gozatu.

32. Plagearen ipuina (ZEA-009/002)

Zeanuriko 'Plagearen ipuina' kontatzen du Bibiñek pasarte honetan.

33. 'Iturriako Andra Grazia' ipuina (ZEA-009/004)

'Iturriako Andra Grazia' ipuina kontatzen du.

34. 'Petralandako akelarrea' ipuina (ZEA-009/006)

'Petralandako lamiñek' ipuina.

35. Juan arotzaren ipuina (ZEA-009/008)

Areatzako ("Billaro") Juan arotzaren ipuina.

36. Arratiako tranbia (ZEA-009/010)

Tranbia beraien etxe paretik pasatzen zen. Beraien etxea errota zen eta jende asko etortzen zen zorroagaz beraienera. Bere osaba tranbia-gidaria zen. Areatzara joaten zen ikastera eta 2.5 pezeta ordaintzen zuten bidaia. Tranbia martxan zihoala sartu eta bajatu behar izaten zen. Gerraostean jenero asko eroaten zuten arratiarrek Bilbora tranbian. Atxurira heldu eta bertan ordaindu behar izaten zen zerga. Zeanuri eta Areatza artean ere bazegoen katea, zerga ordaintzeko tokia.

37. Areatza herri erdalduntzat zuten (ZEA-009/011)

Zeanurikoek eta Arteakoek Areatza (Billaro) herri erdalduntzat zuten eta bien artean dagoenez, lehia asko izaten zituzten. Tranbia-gidariak Arteatik Areatzarako bide hartzerakoan "Salgo de Castillo para entrar en Castilla" esaten ei zuen

38. Kantagintzan lagundu nahi zion gizon ulezuria (ZEA-012/002)

Maisua, aztia, pentsalari fina eta euskalzale trebatua zen denontzat. 1974an ezagutu zuen, 18 urterekin. Kantatzen hasi berria zen eta Otxandiora deitu zioten kantaldi baterako. Adineko gizon bat etorri zitzaion amaieran kantuak elkarrekin egiteko bere burua eskainiz. Orduan ezagutu zuen Bittor. Handik astebetara joan zen haren baserrira. Diamante baten aurrean zegoela jabetu zen. Konturatu zuen Bittorren jakituria lurretik zetorrela, naturatik. Berez sortutako landarea zen. Ilea hazteko ukendua eskaini zion, baina ez zion esan zelan egiten zen. Hori egiten zuen, gauzak kontatu bai baina ez osoan; jakinmina sortu, baina norberak deskubritu behar zituen gauzak.

39. Gauzen barru-barruraino sartzen zen pentsalaria (ZEA-012/003)

"Esnearen bitsa azaltzen dabil jendea, zuztarretara joan barik". Intuitiboa bai, baina gauzak bizi izan zituelako txiki-txikitatik. Barru-barruraino joaten zen. Bitoriano Gandiaga poetarekin konparatzen du. Pentsalari eta filosofo legez meritu handiko gizona zen. Askok daukagu hark zabaldutako bidean aztertzeke. Esaten zuen: "gezur-metak sortu dira hemen eta jainkoak sortu dira; 'hau da nik sortu dudana', baina konturatu arren gezurra dela, hori botatzea...". Oso gizon zabala zen, era guztietako jendearekin biltzen zen.

40. Metaforen bidez mintzatzen zen maisua (ZEA-012/004)

Oso harreman estua izan du berarekin. Bakarrik bizi zen. Barandiaran eta Aresti ezagutu zituen beraren bidez. Arestirekin zegoela botatuko esaldia: "biribil guztiak ez dira arrautzak". Metafora gizona zen, metafora argiak. Hori da maisua izatea. Parabolak bota baina zeuk jakin behar duzu interpretatzen.

41. Pertsona jaio egiten da, eta ez da aldatzen (ZEA-012/005)

Bittorrek izan zuen pare bat amodio, baina ez ziren aurrera joan. Independentzia galtzeko beldur zen. "Nortasuna ez da aldatzen; pertsona jaio egiten da. Txarra jaio dana txarra izango da". "Zela lotuko naiz beste pertsona batekin?".

42. Kritikoa eta fidakaitza (ZEA-012/006)

Bittor beti kritikoa izan da, politika kontuetan ere bai. Kontuz, ez fidatu... Fidakaitza zen. Idazteko orduan ere bai, ez zuen idazterik eta azalpenak ematerik nahi izaten zenbait gauzari buruz. "Nik badakit nork daroan gure itsasontzia, baina neugaz hilko da..., ez noa esaten". Misterioa beragaz joan da.

43. "Zahartzaroa gauza tristea da" (ZEA-012/009)

Bittor ez zen hil azken arnasa bota zuen egunean. Gontzal ohe ondoan zegoen gau hartan. Entzumena ei da azken galtzen den zentzumena. Bittor zaintzen eta idazten igaro zuen gau guztia. Bittor oso triste zegoen azken lau urteetan. "Zahartzaroa gauza tristea da" esaten zuen. Lagunak izandakoak ere gutxi joaten zitzaizkion bisitatzen. Bere baserria botatzea izugarrizko kolpea izan zen. Pisan eta erresidentzian sartu zenean bizitzeko gogoak galdu zuen. Jendea lehenago hil behar zela esaten zuen, zahartzaroak ez duela merezi. Pena ematen zion horrela ikusteak.

44. "Bagare" kantua nola sortu zen (ZEA-013/002)

1974an ezagutu zuen Bittor. Harrezkero, sarri joaten zen Oletako haren baserrira. "Bagare" kantua nola sortu zen. Gabon ingurua zen. Bittor poeta ere bazen. Hainbat kanta sortu zuten elkarrekin, Bittorrek letra eta berak musika. "Bagare"n bere azti-lana egin zuen. Hor batu zituen herriaren batzeko gogoak eta euskara aurrera ateratzekoak. Letra erraza da, baina horrelakoak izaten dira gatzanak. Sormen prozesua zelakoa izan zen. Oletan, Araba partean zeuden. Pare bat egunetan sortu zen. Kantaldi ugari zituen garai hartan, 1975ean. Bizkaian abeslari talde bat bildu eta martxan jarri zen.

45. Sarrionaindiak "druida" deitzen zion (ZEA-013/003)

"Geu askatzaile", "Gogoan" eta abar ere horrela sortu ziren. Letrak momentuari oso lotuak ziren. Xeberri eta biak diskoa grabatzera joan ziren Madrilera, Franco hilzorian zegoela. Arrakasta handia izan zuen. Eta "Bagare" izan zen entzunena. Sikologia handiko pertsona zen. Sarrionaindiak "druida" deitzen zion eta beste batzuek "aztia", "magoa" edo "profeta".

46. Mairulegorretako jaialdia (ZEA-013/004)

Pertur bahitu zuten garaian zen Mairulegorretako jaialdia. Benito Lertxundi, Gorka Knörr eta abarrekin batera kantatu izan zuen Gontzalek kobazulo horretan. Bezperan asmatu zuten Perturri buruzko kantua Bittorrek eta Gontzalek. Erraztasun handia zuen momentua harrapatzeko.

47. "Araban bagare", Gontzal Mendibilek 'a cappella' Bittorren omenez (ZEA-013/006)

'A cappella', Bittorren omenez ARABAN BAGARE Araban bagare, Gipuzkun bagera Ziberun bagire ta Bizkaian bagara (bis), baita ere Lapurdi eta

Nafarra.Guztiok gara euskaldunguztiok anaiak garanahiz eta hitz ezberdinezbat bera dugu hizkera (bis).Herri bat dugu osatzeneta gure zabarkeriz eztaigun utzi hondatzen.Bagare, bagera, bagire, bagara,euskera azkartzekooraintxe dugu aukera.Bagare, bagera,bagire, bagara,Euskadi askatzekooraintxe dugu aukera.Bagare, bagera,bagire, bagara,euskera azkartzekooraintxe dugu aukera.

48. Mendian artzai umetatik (ZEA-023/002)

Bost urterekin eskolan hasi arren, oso gutxi ibili zen. Bederatzi urterekin artzain hasi zen, bakarrik joaten zen mendira. Ikazkin ere aritu zen. Mendiko lana laga eta ardandegia jarri zuen.

49. Bertsolari nahi baina ezin (ZEA-023/003)

Eskolan erdaraz ikasten zuten. Bertsolari hasi zen baina ingurukoek debekatu egin zioten jarraitzea, diktaduraren beldur.

50. Jazintoren uztako bertso pare (ZEA-023/004)

Berak egindako bertso pare abesten du.

51. Baso-erromerietako giroa (ZEA-023/007)

Baso-erromerietan txirularekin eta panderoekin aritzen ziren. Koplak besteei entzunez ikasten zituzten.

52. Eguraldi iragarpena tenporekin (ZEA-023/010)

Eguraldia iragartzen dutenei buruzko iritzia. Berak eguraldia iragartzen du eta asmatu egin izan duela dio. Tenporekin egiten ditu iragarpenak.

53. Denboralea hegoaldetik datorrenean, dena aldrebes (ZEA-023/011)

Denboralea hegoaldetik etortzen denean, ez du ongi iragartzen. Tenporak dira eta euria egiten ez badu, lehorte handia egingo duela dio.

54. Kartatenporak nondik datozen (ZEA-023/012)

Kartatenporak nondik datozen azaltzen du.

55. Animalien jokaera eguraldi aldaketa datorrenean (ZEA-023/014)

Animalien jokaerak eguraldiaren iragarpena argi adierazten duela dio. Adibideak ematen ditu.

56. Txoriak jaten ez duen fruiturik ez da jan behar (ZEA-023/015)

Landareak sendagarriak direla dio. Txoriak jaten ez duen hazirik ez dela jan behar dio. Zein fruitu jan izan dituen azaltzen du.

57. Basoko bizimodua (ZEA-023/016)

Gaztetan animaliak sendatzen aritzen zen. Basoko bizimodua gogorra zela dio. Zelan bizi zen azaltzen du.

58. Txakurraren garrantzia artzainarentzat (ZEA-023/017)

Txakurra artzainaren lagun handia dela dio. Ardi bila txakurra bidaltzen zuen basora, eta esnea batzeko zirenak ere banatzen bazekien txakurrak. Galdutako ardiak ere topatzen zizkion.

59. Artzaina eta txakurrak, leunak badira hobe (ZEA-023/018)

Artzainak eta txakurrak leunak izan behar direla dio. Txakurrik ez dela jo behar dio, horrela ez baitu ikasten.

60. Artzain-txakurra hezteko gakoak (ZEA-023/019)

Artzain-txakurrekin zelan komunikatu behar den azaltzen du. Txakurra mugimenduan dabilenean, ez duela entzuten esaten du. Berba gutxi egin behar zaiola dio.

61. Kutsadura eta denboraleak etorkizunean (ZEA-023/022)

Eguraldiak kolpeka egingo duela dio; tarteka denboraleak egongo direla. Kutsadura handia dagoela dio eta kentzen zaila izango dela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com